

AURKIBIDEA

ABENDUALDIKO I. IGANDEA	4
ABENDUALDIKO II. IGANDEA	10
ABENDUALDIKO III. IGANDEA	16
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA	22
JAUNAREN JAIOTZA	28
FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE	34
JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA	40
EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA	45
JAUNAREN AGERKUNDEA	50
JAUNAREN BATAIOA	55
ERANSKINAK:	
I. Hasierako agurra kantuz egiteko doinuak	61
II. Damu-otoitzerako beste era batzuk	62
III. Fede-aitormena	63
IV. Letania-erako esker-otoitzak	65
V. Bedeinkapen-eskaria kantuz egiteko doinuak	79
VI. Azken-agurra egiteko doinuak	80

ABENDUALDIKO I. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Abendualdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzera datorren Jaunak eman diezagula bere grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Abendualdia hasten dugu gaur, eta honekin liturgi urte berria. Jainkoa gizakiarengana gerturatu dela eta salbatu egin nahi duela gogoratzeko aldi bikaina dugu Abendualdia. Eukaristia itxaronez, Igandea ospatuko dugu guk. Jaunari bidea prestatzen diogu honela.

Ohitura den tokian, Abendualdiko koroaren lehenengo kandela piztuko da une honetan, nahi izanez gero ezaugarria kantuz lagunduz.

Damu-otoitza (*Koroaren ezaugarria egin bada, utz daiteke damu-otoitza*)

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Hitzaren eta Eukaristiaren mahaira gonbidatu gaituen Jaunak, aldi honetan bere etorreraren zain gaudela, gure bihotzak prestatu eta esna egoteko eskatzen digu. Bekatari garela aitortuz, eska diezaiozun apalki errukia.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

- Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz etengabe geurekin zaituguna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera egun batean etorriko zarena: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna,
emaguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
gugana datorren Kristoren bidera
egintza onez beterik ateratzeko gogoia,
azken egunean bera aintzaz etortzean,
haren eskuinaldean jarririk,
zeruko erreinua irits dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Abendualdiko lehen igandean hasi eta liturgi urte honetan guztian San Mateoren Ebanjelioa irakurriko dugu. Jaunak, bere itzultzea iragarritz, erne egotera dei egiten digu (*Eb.*). San Paulok ere Kristoren eguna prestatzera gonbidatzen gaitu (*2. ir.*). Eta, lehenengo irakurgaietan, Isaias profetak, Jaunaren eguna urrunera ikusiz, munduko herri guztiak Jerusalem, Jainkoaren hirian, bilduko direla iragarriko digu: «Atzerri-jendeak hara joko du» (*1. ir.*).

B urtean Abendualdiko lehen igande honetan hasi eta liturgi urte honetan guztian San Markosen Ebanjelioa irakurriko dugu. Jaunak, bere itzultzea iragarritz, erne eta zain egotera dei egiten digu (*Eb.*). San Paulok, bere ustea Jainkoaren zintzotasunean jarritz, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera uste osoz beterik itxarotera gonbidatzen gaitu (*2. ir.*). Lehenengo irakurgaietan, judu-herriaren eskari sutsuan bat egiten dugu; nahigabearen erdian, salba lezakeen Jaun bakarragana jotzen du: «Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina! Zure aurrean mendiak urtuko lirateke» (*1. ir.*).

C urtean Abendualdiko lehen igandean, San Lukasen Ebanjelioa irakurtzen hasten gara. Jaunak, bere itzultzea iragarritz, erne eta otoitzean egotera dei egiten digu (*Eb.*). San Paulok, bere aldetik, mundu guztia gainezka maite izanez, Kristoren etorrerarako presta gaitzela eskatuko digu (*2. ir.*). Lehenengo irakurgaietan, Eguberriak iragartzen zaizkigu: «legezko muskil» bezala sortuko den Daviden semearen etorrerak gizaki guztiei zoriona ekarriko die (*1. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 37-44. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Jaunaren azken etorreraren zain gaudela, bere egiazko presentzia goza dezakegu Eukaristiako Ogi Santuan. Erne egoteko esan digunak berak laguntzen digu azken eguna arte argiz beterik eta leialtasunez bizitzen. Gorets dezagun Jauna orain eta eman diezazkiogun eskerrak, beti gure artean delako.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jesusek irakasten digunez, eska diezaiogun zeruetako Aitari, etor dadila beraren erreinua gure gizartera:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Bakearen Erregea etorriko zaigun itxaropenez eta pozez, eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

On egin diezagula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza iheskorren artean erromes gabiltzanok,
zeruko ondasunak maita ditzagula
eta horietan jar dezagula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

ABENDUALDIKO II. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Abendualdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzera datorren Jaunak eman diezagula bere grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Abendualdiko bigarren igandea ospatzera bildu gara. Ez dugu gaur Eukaristia ospatuko, baina elkarrekin bilduz, Jainkoaren Hitza entzunez eta gure Jauna hartuz Jaunaren eguna ospatzearen poza gozaten dugu. Etorriko da gure Jauna eta beteko ditu berarengan itxaro dutenen gogo-bihotzak.

Ohitura den tokian, Abendualdiko koroaren bigarren kandela piztuko da une honetan, nahi izanez gero ezaugarria kantuz lagunduz.

Damu-otoitza (*Koroaren ezaugarria egin bada, utz daiteke damu-otoitza*)

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Abendualdian Jaunaren etorrera gogoratzen dugu, eta haren etorrera berria prestatzera egiten zaigu dei. Presta dezagun geure bihotza Jaunari ongietorria egin ahal izateko.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gure bekatu guztien barkamen-iturria zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztiok bihotz-berritu gaitezen nahi duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaz bataiatu gaituzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna eta errukitsua,
lur honetako gauzen ardura ez dezagula eragozpen izan
zure Semeari bidera gogotsu irteteko;
eta eraman gaitzazu, jainkozko jakinduriaren irakaspenez,
zeure Semearekin bat egitera.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A *urtean*

Joan Bataiatzailea bide-eratzzailea da, Jaunaren etorrera iragartzen aurretik lasterka doan igande honetako pertsonaia nagusia. Bere ingurukoak «Jaunari bidea prestatzera» gonbidatzen ditu Joaneke, beren biziera aldatzera dei egiten die, Mesiasen etorrera gainean delako (*Eb.*). Isaias profetak honela ikusten du Kristo salbatzailea: diren guztiak beregan adiskidetuko dituen, Daviden jatorrikoa dena eta Jainkoaren Espiritua bere gainean duena (*1. ir.*). San Paulok, berriz, Jesu Kristogan salbamera gizon-emakume guztiei eskaintzen zaiela agertuko digu (*2. ir.*).

B *urtean*

Bi liburu santuren lehen-orrialdeak irakurriko ditugu gaur: San Markosen Ebanjelioaren hasiera eta judu erbesteratuei zuzendutako Israelen Kontsolazio-liburuaren hasiera. «Jaunaren bideak prestatzera» dei egingo digute biek, Joan Bataiatzaileak (*Eb.*) antzinako profetaren hitz berak erabiltzen dituelarik (*1. ir.*). Antzina, hain zuzen, errege baten etorrera itxaroten zenean, bideak prestatu beharra izaten zen. Apostoluaren gutunak, Kristoren bigarren etorrerak irekiko dituen zeru berrira eta lur berrira begira jartzen gaitu (*2. ir.*).

C *urtean*

San Lukasek, gaur, Joan Bataiatzailearen ministerioaren hasiera aurkezten digu handikiro; penitentzia iragarritz, «Jaunaren bideak prestatzera» dator (*Eb.*). Profetaren hitzak esango digu Jaunak berak antolatuko duela bere herriaren ibilbidea, malkar guztiak lautuz, bere gurasoen lurraldera helarazi arte (*1. ir.*). Olerki gisako irudi hauek entzun ondoren, San Pauloren guraria haxe da: gu guztiok, biziera zuzenaren bidez eta Jainkoak guretzat dituen asmoak gero eta gehiago ezagutuz, Kristoren etorrerarako presta gaitzela (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 59-68. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Jesu Kristo gure Jauna noiz etorriko zain gauden aldi honetan, bere errukia eskatu eta eskertuko dugu: behinola, behartsuei berri ona ematera eta bihotz-urratuak sendatzera etorri zen bezala, orain gure aldi honetan ere salbamena dakarkie behar duten guztiei. Gorets dezagun pozez eta itxaropenez.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkarrekin guztion Aitari:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Bakearen Erregea etorriko zaigun itxaropenez eta pozez, eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Eukaristiako espiritu-janari honek aserik,
otoitz egiten dizugu, Jauna:
erakutsiezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

ABENDUALDIKO III. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Abendualdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra *(Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.).*

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzera datorren Jaunak
eman diezagula bere grazia eta bakea.

Guztiek erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Jaunaren etorrerak sortzen duen poza nabari da Elizan Abendualdiko hirugarren igande honetan. Mezarik ospatuko ez badugu ere Jaunaren eguna da, eta, beraz, Kristoren salbamina gudan gertatzen dela ospatzeko eguna. Eska diezaiogun Jaunari berak dakarkigun salbamenaren poza azalekoa ez, baizik eta gure izatea barrutik eraldatzerainokoa izan dadila.

Ohitura den tokian, Abendualdiko koroaren hirugarren kandela piztuko da une honetan, nahi izanez gero ezaugarria kantuz lagunduz.

Damu-otoitza *(Koroaren ezaugarria egin bada, utz daiteke damu-otoitza)*

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Jaunaren etorreraren gertutasuna haren errukia gozatzeko aukera da. Eska diezaiogun apaltasunez gure bekatuen barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, zure herriari bakea ekartzera etorri zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, galdurik zegoena salbatzera etorri zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua berri egitera etorri zinena: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, ikusten duzu zeure herria,
Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
egizu, arren, iritsi gaitzela salbamen miragarriaren zorionera
eta gorapen eta pozik handienaz ospa dezagula.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Israelgo erbesteratuek, euren askatasun-eguna amesten jartzen zirenean, egun zoragarri hartan alaitasunak gaixotasun guztiak aurrean eramango zituela uste zuten (1. ir.). Amets hura Jesusengan egia bihurtu zen. Itsuek ikusten dute, elbarriak badabiltza eta, batez ere, behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Bere etorreraz Mesiasen garaia iritsi zela argiago ezin zuen agertu Jesusek (Eb.). Baina, milaka urte igaro beharko zuen oraindik betetasun osoa lortu arte. Horregatik, Santiagok Jaunaren etorrera iraupenez itxarotera dei egiten digu (2. ir.).

B urtean Jainkoak salbamen-ekintza aurrera eramateko gantzutu zuen haren irudi ederra eskaintzen digu lehenengo irakurgaiak (1. ir.). Halako batean, Nazareten, Jesusek bere buruari ezarriko dio profetia hau. Gaur irakurtzen dugun Ebanjelioan, berehala etortzekoa den hura bezala aurkeztuko digu Joaneke Jesus (Eb.). Kristo bere lehen eta bigarren etorrera bitartean, beti etortzen ari da. Horregatik, San Paulok itxaropen alaiaz bizitzera eta Jainkoak gugandik itxaron duenarekin adi egotera dei egiten digu (2. ir.).

C urtean San Paulok pozik, neurritz eta esker onez bizitzera dei egiten digu, «hurbil baita Jauna» (2. ir.). Jainkoa barnean sumatzetik sortzen den poz honek betetzen zuen Sofonias profetaren bihotza; horregatik, itxaropenez agurtzen zuen Jaunaren egunaren etorrera (1. ir.). Ebanjelioan, Joan Bataiatzaileak Israelen itxaropena berehala beteko dela iragarriko digu. «Badator ni baino ahaltsuago dena». Baina,aldi berean, Jaunaren etorrerarako prestatu ahal izateko, zuzen jokatu eta geurea besteekin erdibanatu behar dugula ere esango digu Joaneke (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 82-90. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gogostera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Kristo etorri zen mundura eta etorriko da berriz ere, baina Eukaristiako Ogi Santuan betiko geratu da gure artean. Jaunaren egun eder honetan, gurtu dezagun orain, gero sakramentu eran hartuko dugun gure Jauna. Eska diezaiozun gida dezala beti mundua bakebidetik. Gorets dezagun pozez eta itxaropenez.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Bakearen Erregea etorriko zaigun itxaropenez eta pozez, eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiak, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure jokaera txarretatik,
eta datozkigun Eguberri-jaietarako prestatu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

ABENDUALDIKO IV. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Abendualdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzera datorren Jaunak
eman diezagula bere grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Gabon-jaiak gainean ditugularik, gure Salbatzailearen Ama Mariarekin ospatuko dugu igande honetako kristau-batzarra. Zorionekoak gu, sinesmenaren argia eman zaigulako! Baina Jaunak, etortzean, esna eta bihotz-zabalik aurki gaitzan, susper dezagun fedea eta berritu itzaropena.

Ohitura den tokian, Abendualdiko koroaren laugarren kandela piztuko da une honetan, nahi izanez gero ezaugarria kantuz lagunduz.

Damu-otoitza (*Koroaren ezaugarria egin bada, utz daiteke damu-otoitza*)

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: itzaropenaldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

- Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen munduko argia: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera zatozen Artzain Ona: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Aitaren agintzariak beren betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia;
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
haren nekaldi eta gurutzearen bidez,
iritsi gaitezela piztueraren ospera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Eguberri aurreko igande honetan, gizaldietan zehar itxarondakoa Jesus dela adierazten digute hiru irakurgaiak. San Mateok, Joseri egindako iragarpena kontatzean, Isaiasek Emmanuelez esandakoa Jesusen jaiotzan beteko dela adierazten digu (1. ir.): Maria Birjinaren semea «Jainkoa gurekin» izango da. Jarriko dioten izenaren arabera, «Jainko salbatzailea» da (Eb.). Kristo berpizturik ikusi zuen San Paulok, gizon egin zen Jainkoa dela azpimarratuko du: Jainkoaren Semea, «haragiz Davidengandik jaioa» (2. ir.).

B urtean Gaur entzungo dugun Jesusen jaiotzaren iragarpena oso ezaguna da (Eb.). Lehenengo bi irakurgaiak Jesusen jaiotzako misterioaren sakontasuna agertzen digute: Jesusek Jainkoagandik bere aita Daviden errege-aulkia hartuko duela iragartzen dio Gabriel aingeruak Mariari. Horrela, Natan profetak Davidi egindako agintzaria betetzen dela adierazten du (1. ir.). Baina, Jainkoaren Semea gure haragitan etortzeak Jainkoak gizaki guztiei dien maitasun neurrigabea agertuko du batez ere. San Paulok esaten digu, «betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu duela Jainkoak» (2. ir.).

C urtean Kristo baino zortzi mende lehenago, Mikeas profetak Mesias Betleemen jaioko zela iragarri zuen; orakulu honek gidatuko zituen magoak Hurrenganaino. Horixe izango da gure lehen-irakurgai (1. ir.). Munduan sartzean Jainkoaren Semeak duen jarrera agertuko digu Hebrearreki egindako gutunak: «Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko» (2. ir.). Ebanjelioan, azkenean, Elisabetekin batera, «emakumeen artean bedeinkatua» den Birjina Ama agurtuko dugu, eta Mariaren aintza abestean, fedearen aintza ere abestuko dugu: «Zorionekoa zu, sinetsi duzulako» (Eb.).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 104-112. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Jesus Jaunak gure giza izatea hartu zuen eta bere heriotza eta piztueraz mundua salbatu zuen. Azken egunean gugana etorriko den artean, Eukaristian gurekin geratu nahi izan du. Gurtu dezagun orain eta eskertu misterio handi hau.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Guk ez dakigu Jainkoari zer eta nola eskatu; baina bihotzean dugun haren Espirituak otoitz hau jartzen digu ezpainetan:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Bakearen Erregea etorriko zaigun itxaropenez eta pozez, eman diezaiozun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia
presta gaitzela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 25ean JAUNAREN JAIOTZA

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitarene, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

«Gaur argi batek distiratuko du gure gainean: Jauna jaio baitzaigu, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Gizon eginik, gure artean jarri du Jaunak bizilekua. Egia eder honen pozean deitu gaitu gaur Elizak kristau-batzarrera.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Jaunak agertu digu bere erruki handia Semea gure artera bidaltzean. Dohain miresgarri hori eskertuz aitoren dezagun bekatari garela.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun Aitarenen Lehen Semea: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, era miragarrian moldatu duzu giza duintasuna eta era miragarriagoan eraberritu; egizu, gizatasunean gurekin bat egin duen zure Semeak bat egin gaitzala berekin jainkotasunean.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

Gauerdiko Mezako Ir. «Haur bat jaio zaigu; seme bat eman zaigu. Errege bake-emaila izango du izena». Isaiasi poz-jauzia eragiten dion jaiotza hura (1. ir.), Jesusenaren urruneko iragarpen besterik ez zen; honek Jainkoarentzat aintza eta gizakiontzat bakea dakartza (Eb.). Jesusen etorrera bake-dohain dugu; San Paulok dioenez, harengan «Jainkoaren grazia agertu delako, gizaki guztion salbamerako» (2. ir.).

Goizeko Mezako Ir. Ebanjelioak artzainen poz oparoaren eta Mariaren isileko pozaren partaide egiten gaitu (Eb.). Apalak alaitasunez betetzen dituen haurra Jainkoak bere herriari agindutako Salbatzailea da: Jerusalem «Herri ez utzia» izatera eramango duena (1. ir.). Fede-begiz irakurri behar dugu gertaeraren kontakizuna, Jainkoaren bihotz ona eta gizakionganako onginahia agertuko zaizkigula (2. ir.) geuregana dezagun.

Eguneko Mezako Ir. Irakurgaiak giza izateaz gainetikoa dena ikusarazten digute Jesusen sehaskan. Haur jaio-berria «Hitz haragi egina» da, Ebanjelioak dioskunez (Eb.), «beraren bidez egin zuen Jainkoak mundua». «Bera da Aitaren aintzaren argi distiratsua» Hebrearrei egindako gutunak dioenez (2. ir.). Hura lurrera etortzeak gure Jainkoaren salbamena dakar, eta, lehenengo irakurgaiak dioenez, lurbiraren bazter guztietara iritsiko da (1. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 139-148. orrialdeetan daude egun honetakoak. Gauerdiko, Goizeko nahiz Eguneko Mezakoak aukeratu daitezke. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Profetek itxarondako Mesias Jauna, Jainkoaren Hitz bizia gizon egin da Maria Birjinaren bidez, Artzainei agertu zaie eta herri guztiei adierazi. Eukaristia sakramentuaren bidez gure artean geratu da, betiko. Gorets dezagun bihotzez.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaigun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jainko errukitsua,
gaur jaio den munduaren Salbatzaileak
Jainkoaren seme-alaba bihurtzen gaituen bezala,
egin gaitzala hilezko ere.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

Jaunaren Jaiotzako zortziurren barruko igandean FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE

Jaia

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

«Gure Jaungoikoa lurrean agertu zen, eta gizakien artean bizi izan zen» eta gizon-emakume gehienak bezala, familia batean jaio, hazi eta hezi. Hauxe da, senideok, igande honetan, Gabon-jaien giro pozgarrian, gogoratzen eta ospatzen duguna: Jesus, Maria eta Josek egiten zuten Familia Santua. Berari begira eskerrak emango dizkiogu Jainkoari, gugandik hain hurbil agertu nahi izan duelako; eta eredu honen aurrean jarriko ditugu geure familiak, argibide eta laguntza izan dezaten. Ospa dezagun pozik igandeko batzarra.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Zabal dezagun gure bihotza Jaunaren erruki mugagabera. Eska dezagun barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Maria Birjinagandik jaio eta gure senide egina: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Jose eta Mariaren menpean bizi izan zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Jainkoaren seme eta alaba izatea lortu diguzuna: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, egiazko bizi-eredua eman diguzu Familia Santuagan; egizu, onbera, izan ditzagula geure familietan ere haien harreman eta maitasun berberak, betiereko zoriona izan dezagun zeruetako zure etxean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan Eguberrialdiko ebanjelioek, Jesusen haurtzaroa oroitarazten digute. Kontaketa hauek guztiek Nazaretera garamatzate (*Eb.*). Beste bi irakurgaiak dei eta oharpen ditugu, gure familia-bizitza Jainkoaren begiradaren eta Kristoren maitasunaren eraginpean joan dadin. Deigarria da, benetan, Itun Zaharreko testuen samurtasuna (*1. ir.*) eta etxekoen bihotz-bateko izatea bermatzeko San Paulok erabiltzen duen psikologia (*2. ir.*).

B urtean (aukerakoak) Jainkoak egindako agintzariak bere argi-ilunak izan zituen Abrahamengan; emaztea, Sara, bezala, bera ere zaharra izan arren, «zure erraietatik sortuko dena izango duzu oinordeko» agindu zion (*1. ir.*). Eta, agindu bezala, zeruko izarren eta itsasertzeko hondarraren ugaritasuna eman zion ondorengo (*2. ir.*). Jainkoak Israel herriari aspaldidanik egindako promesa orain bete dela adierazten du Simeonek, Espiritu Santuak argiturik. «Ikusi baitute nire begiok Zugandiko salbamena, nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Baina orakulu edo mezu honek badu bere alderdi iluna ere: Zuri, Maria, «ezpata batek alde zatek zulatuko dizu arima» (*Eb.*).

C urtean (aukerakoak) Anak eta Elkanak seme-alabarik ez izanaren nahigabea bizi dute. Baina jaioko da Samuel. Hau, Jainkoak emandako dohaina duenez, Jainkoari itzultzen dio, esker onez, «bizitza osorako» (*1. ir.*). Eguberriko misterioaren muina adierazten digu San Joanen gutunak: Jainkoaren Semea gure arteko egin da, gu Jainkoaren familian seme-alaba izatera irits gaitezen (*2. ir.*). Jesusek gurasoengan harridura sortzen du, ulertu baitu hori dela Jainkoaren nahia. Josek eta Mariak ez dute ulertu Jesusen jokabidea, baina «haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak» (*Eb.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 149-161. orrialdeetan daude igande honetakoak. Bi aukera daude: A-B-C urteetako irakurgaiak har daitezke, nahiz urteko ziklorako jarriak dauden aukerako irakurgaiak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Familian jaso genuen fedearen dohaina, gure gurasoek Bataioko egunean elizara ekarri gintuztenean hasita. Dohain hori eskertzeko egun ederra da Nazaretoko Familiaren egun hau. Gorets dezagun Jauna, esker onez beterik.

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Familia bereko anaia-arreba garenez, esan diezaiogun elkaturik guztion Aitari:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Aita guztiz ona,
sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunok
Familia Santuaren antzera bizi gaitezela,
lur honetako estualdien ondoren
berarekin batean betiko zoriona iritsi dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Urtarrilaren 1ean Jaunaren Jaiotzako zortzigarrena JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari edota Ama Birjinari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Eguberri-giroan bildu gara kristau-batzarrean. Eguberri-zortzigarren egunean, Jainkoaren Ama Mariaren festaburua ospatzen dugu. Ospakizun honetan, Mariaren bidez eman digun Salbatzaileagatik eskerrak emango dizkiogu Jainko Aitari; gure biziera hartu duen Jainko-gizonaren argitan jarriko dugu geure bizitzako ibilaldia. Bukatu den urtean bizi izandakoak eskertuz, gure bihotzak irekiko dizkiogu berari urte berrirako.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Ospakizunaren sarreran eska dezagun bekatuen barkamena, urte-hasierako ospakizuna egiteko gai izan gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, diren guztiei izatea eman diezun Aitaren betiereko Hitza: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu honetara etorri eta mundu honek onartu ez zaituen egiazko Argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon eginik gure artean bizilekua jarri duzun Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Maria dohatsua birjina izanik ama eginez, gizadiari salbamena eman diezun Jainkoa, egizu, laguntzaile ere izan dezagula zure aurrean beraren bidez lortu baikenuen biziaren sortzailea, zure Seme Jesu Kristo gure Jauna.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Jesus, jaio eta zortzigarren egunean, erdaindua izan zen Moisesen legearen arabera, eta Jesus izena ezarri zioten; halaxe kontatzen digu Ebanjelioak. Artzainek Betleemen ikusia adierazten dute, Jainkoa goratuz; Mariak, berriz, bihotzaren isiltasunean hausnartzen dena (*Eb.*). Jainkoak bere Semea «emakumeagandik jaioa», bidali digula aitortzean, egoki adierazten du San Paulok Mariaren zeregina salbamen-misterioaren garapenean (2. *ir.*). Urte berrirako bakea eskatuz egiten zaio dei Jaunari lehenengo irakurgaiari (1. *ir.*).

Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIAK 1. liburuko 168-169. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzaileak ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Maria Birjinaren errai errukitsuek eraman zuten eta mundura ekarri Salbatzailea, Mesias Jauna, Espirituaren indarra bitarteko. Jesus gurekin dela eskertuko dugu orain elkarrekin otoitz eginez.

Hiru erataraz egin daitezke esker-otoitza:

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitza batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoa daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoiiza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoiiza esango du zuzendariak:

Jauna, pozik hartu ditugu sakramentu zerutarrak;
egizu, Maria beti Birjina dohatsua
zure Semearen sortzaile eta Elizaren amatzat
aitortzen eta goresten dugunok
laguntza izan ditzagula betiko bizia lortzeko.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Eguberriko jaien erdian, igandea ospatzera bildu gara kristauok. Gizakiarekin bere jaiotzaz bat egin zuen Jesu Kristo Jaun bera da, gizakien bidea hartu eta sufrimendua eta heriotza igarota, guztioi bizi berria eskaintzen diguna.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Zabal dezagun gure bihotza Jaunaren erruki mugagabera. Eska dezagun barkamena.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun Aitaren Lehen Semea: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa, fededunen argia,
bete ezazu mundu osoa zeure aintzaz,
eta argi distiratsu horrek
eraman ditzala herrialde guztiak Zu ezagutzera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Gaur, berriro, Jaiotza-eguneko Ebanjelioa irakurriko dugu: «Hitza haragi egin zen eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta geuk ikusi dugu haren aintza» (*Eb.*). Hitza haragi egiteak Jainkoak betidanik izandako egitasmoa bere betera darama. Israelgo jakitunek aurrez sumatua zuten Jainkoaren jakinduriaren egitasmoa: bizilekua gizakien artean jartzekoa (*1. ir.*); eta San Paulok argiro zehazten du Jainkoaren egitasmo horren azken helburua: gu beraren seme-alaba egitea. Horretan datza «eskuzabal eman digun dohain zoragarria» (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 170-174. orrialdeetan daude igande honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Handia izan bazen Jainkoaren Semearen gizon egitea, miresgarria da Eukaristiako sakramentuan betiko gurekin geratu izana ere. Esker dezagun bihotzez dohain bikain hau.

Hiru erataraz egin daitezke esker-otoitzak:

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jainko gure Jauna, apalki eskatzen dizugu,
sakramentu honen indarrak
garbi gaitzala geure grina txarretatik
eta bete ditzala gure asmo zuzenak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Urtarrilaren 6an

JAUNAREN AGERKUNDEA

Festaburua

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari nahiz Agerkundeari dagokion sarrerakantukatu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiek erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: «Horra non datorren diren guztien Jauna, bere eskuetan erregetza, ahalmena eta agintea dituela». Egun hauetan haur txiki eginik ikusi dugun Hori, gizaki guztien Salbatzaile agertzen zaigu gaur. Ospa dezagun pozez bere Agerkundera.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Aitor ditzagun apaltasunez geure bekatuak.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, diren guztiei izatea eman diezun Aitaren betjereko Hitza : erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu honetara etorri eta mundu honek onartu ez zaituen egiazko Argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon eginik gure artean bizilekua jarri duzun Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, egun honetan agertu zenien, izarra gidari zela,
zeure Seme bakarra jentil-herriei;
izan zaitetz gurekin onbera
eta eraman gaitzazu sinesmenez ezagutzen zaitugunok
zeure aintzaren ederra bete-betean gozatzer.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Gizakiok Kristorekin gorputz bakarra osatzera deituak gara eta Jainkoaren baitan elkarturik bizitzera. Horra hor, San Pauloren arabera, betidanik ezkutuan egon den misterioa (2. ir.). Israelgo profeta bakarren batzuek izan zuten horren susmoa. Olerki bidez, profeta horietako batek iragarriko digu hori (1. ir.). Harrezkero mendeak igaro ziren. Eta, egun hauetan, Kristoren Jaiotzak egia bihurtu du orduan bizi izandako esperantza. Magoak Sortaldetik Betleemera iristiaz batera, argituz doa misterioa: jentil-herriak Kristogana abiatzen dira (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 1.** liburuko 190-192. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Magoen egun hau, katekista guztien eguna ere bada. Gure parroketan beraiek ere Kristo “agertzen” dute, ematen duten heziketaren eta testigantza bidez. Gure Jauna aldarera ekartzean eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari katekista guztiengatik.

Hiru erataraz egin daitezke esker-otoitza:

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaiozun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.

Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jauna, izan dezagula lagun zure argia nonahi eta beti, ospatu dugun misterio hau fede garbiz sakon dezagun eta maitasun gartsuz onartu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

Urtarrilaren 6aren ondorengo igandean JAUNAREN BATAIOA

Jaia

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Eguberrialdiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitarene, eta Semearene, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 61. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gu salbatzeko jaio den Kristok eman diezagula bakea eta maitasuna.

Guztiek erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Jaunaren Bataioaren jaia ospatzen dugu gaur. Jesus da Jainkoaren Zerbitzaria, Espirituak Gantzututako Mesias, Aitak Semetzat aitortu zuena, herri guztien salbamenaren Berri Ona iragartzera bidalia.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Gure Jaungoikoa gizon egin da guk haren bizitzan parte izan dezagun. Eska diezaiogun izan dezala gutaz erruki eta eman diezagula gure bekatu guztien barkamena, berak dakarkigun salbamenaren grazia geure barruan hartzeko gai izan gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Bake-errege eta Jaungoikoaren Santua: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, ilunpetan distiratzen duzun argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizaki berriaren irudia: erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (62. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Kristo Jordan ibaiko uretan bataiatua izan zenean
 goraki aitortu zenuen, Espiritu Santua haren gainera bidaliz,
 hura zela zure Seme maitea:
 emaiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik jaio diren
 zeure seme-alabatzakoei, zure maitasunean irautea beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A-B-C urteetan

Jesusen bataioan –esaten digu Ebanjelioak–, Espiritu Santua jaitsi zen haren gainera eta Aitaren ahotsa entzun zen, Jesus bere Seme maite bezala aurkeztuz (*Eb.*). Honela bete zen Jaunak aspaldidanik esana: «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua» (1. *ir.*). Aitak goratua eta Espirituak sagaratua zen Jesusek has zezakeen jadanik bere eginkizuna, San Pedrok honela laburbildua: «on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza» (2. *ir.*).

B urtean (aukerakoak)

Isaiasek zerutik jaisten den euriak duen bizi-indarra azpimarratzen du; euria Jainkoaren hitzaren irudi da «ez da Nigana hutsik itzuliko..., beteko du Nik ezarritako helburua» (1. *ir.*). Jesusek mundua garaitu duela esaten digu Joan apostoluak, eta Bataioko ura, heriotzako odola eta Espirituaren aitormena dira Jesus Jainkoaren Semea dela egiaztatzen digutenak. (2. *ir.*). Ebanjelioan bataioa hartzen ikusiko dugu Jesus eta zerutik etorritako mintzoak esango du: «Zu zara nire Semea, nire maitea». Bera izango da Jainkoaren bozeramailea; berari entzun behar diogu (*Eb.*).

C urtean (aukerakoak)

Isaias profetak Jaunari bideak prestatzera egiten digu dei; Abendualdiko mezua dirudi (1. *ir.*); hain zuzen, Jesus aurkeztuko zaigu Ebanjelioan Jainkoaren mezulari bezala; berri ona hots egingo digu eta prest izan behar dugu gogoan, zabalik bihotza, haren mezua entzuteko (*Eb.*). Gizaldietan promesa zena, orain «agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako», baina hori ez da gure egintza onen saria, «Jainko gure salbatzailearen bihotz ona eta onginahiaren» agerpen baizik. Jainkoak oparo isuri digu bere Espiritua gizaki berriaren araberako biziera egin dezagun (2. *ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 206-216. orrialdeetan daude igande honetakoak. Bi aukera daude: A-B-C urteetako irakurgaiak har daitezke, nahiz urteko ziklorako jarriak dauden aukerako irakurgaiak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (63-64. or.).

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da. Gure Jauna ekarriko da sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:

Senideok: Bataioko egunean Kristogan txertatuak izan ginen eta Sendotza hartzean Espirituaz gantzutu gintuzten: horrek edertzen du gure bizitza Eukaristiara gerturatzeko. Eukaristia santua hartu baino lehen eman diezaiogun gorespen Kristo Ogi biziari.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (65-78. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Familia bereko anaia-arreba garenez, esan diezaiogun elkaturik guztion Aitari:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Eman diezaiogun bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jaun errukitsua,
dohain santu hauez aserik apalik dei egiten dizugu:
egin gaitzazu zeure Semearen hitzaren entzule zintzo,
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 79. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 80. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

ERANSKINAK

I. HASIERAKO AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

*Zuzendariak***1**

∇. Jaun-goi-ko gu-re Ai-tak e-ta Je-su Kris-to gu-re Jau-nak



e-man di-e-za-gu-te-la be-ren gra-zi - a e-ta ba-ke-a.

Denek

℞. Be - dein - ka - tu - a Jaun - goi - ko -



a, Je-su Kris-to gu-re Jau-na-ren Ai - ta.

*Zuzendariak***2**

∇. Gorets deza-gun Jau - na, eta denok batean bedein-ka



de - za-gun ha-ren i - ze - na.

Denek

℞. Be-dein-ka-tu-a Zu, Jau-na, o-rain e-ta be-ti.

II. DAMU OTOITZERAKO BESTE ERA BATZUK

1.

Isilune laburra egingo da. Eta, denek batera, beren bekatuak aitortuko dituzte:

Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai, ene senideoi, bekatu egin dudala gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; *Eta, bularra joz, esango dute:* bai, bekatari naiz. Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei eta zuei ere bai, ene senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

✠. Kristo, erruki. **℟.** Kristo, erruki.

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

2.

Isilune laburra egingo da. Eta, elkarrizketa moduan esango da:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Bekatu egin dugu eta.

✠. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. **℟.** Eta salba gaitzazu.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

✠. Kristo, erruki. **℟.** Kristo, erruki.

✠. Erruki, Jauna. **℟.** Erruki, Jauna.

III. FEDE AITORMENA

1.

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,
Aita guztiz ahaltzua, zero-lurren Egilea,
ageri diren eta ez diren guztiena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,
Jainkoaren Seme bakarra,
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;
sortua, ez egina, Aitaren izate berekoa.
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.
Gu gizakiongatik eta gu salbatzeko jaitsi zen zerutik.

Ondorengo hitzetan, gizon egin zen arte, denak makurtu egingo dira.

Eta, Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjinagandik gorputz harturik, gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,
oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Santuak esan bezala,
zerura igo eta Aitaren eskuinaldean jarririk dago.
Aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera,
eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Sinesten dut Espiritu Santua, Jauna eta bizi-emailea,
Aitagandik eta Semeagandik dena;
Aitarekin eta Semearekin batean agur eta gorespen berbera
hartzten duena eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.
Aitortzen dut Bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.
Itxaroten dut hildakoen piztuera
eta datorren munduko bizia. Amen.

2.

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztiduna,
zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,

Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zena arte, denak makurtu egingo dira.

Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Maria Birjinagandik jaio zena;
Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;
gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena;
infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean
hilen artetik piztu zena;
zeruetara igo eta Jainko Aita ahalguztidunaren
eskuinaldean jarririk dagoena;
handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,
Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna,
bekatuen barkamena,
haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

IV. LETANIA ERAKO ESKER OTOITZAK

1. Aintza Zuri, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak ematen dizkizugu, Jaungoiko gure Aita,
Biziaren ogia den zure Seme Jesu Kristorengatik.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

∇. Ain - tza Zu - ri, Jau - na. ℞ Ain - tza Zu-
 ri, Jau - na e - ta es - ke - rrak Zu - ri!

Zuk beti prest dituzu guztiontzat
 behar ditugun janari-edariak,
 eta orain gertu daukazu guretzat
 betiko bizia ematen duen ogia,
 Jesu Kristo zure Semearen gorputz santua.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

℞. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

Elkarrekin jango dugun Eukaristiako ogia
 gari-ale askotatik egina izan den bezala,
 horrela gu ere, zure Eliza osotzen dugunok,
 sinesmen eta maitasun berak bil gaitzala
 lurraren alde batetik besteraino
 zure Erreinuko batasunean.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

Eskerrak, bai, Jaungoiko gure Aita,
baden, badatorren eta etorriko den
zure Seme, Jesu Kristo, gure Jaunarengatik.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna eta eskerrak Zuri!**

2. Bedeinkatua Zu, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuk egin duzun guztia
gure eskuetan jarri duzu, Jauna,
itxaro dugun lur berria bideratzen
Zurekin batera lan egin dezagun.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak

Denek ∇. Ho-rre-ga - tik, be-dein-ka - tzen zai-tu - gu:

✠. Be-dein-ka-tu - a Zu, Jau - na, gu-re Jain-ko - a!

Zure Seme Jesu Kristo eredu jartzen diguzu
eta haren antzera hobeak izaten saiatzera dei egiten.
Beraren bidez eta berarekin gizaki berri eginik,
betiko biziaren betera eraman nahi gaituzu.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:

✠. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

Zure Elizaren batasunean parte izatera
deitu gaituzu,
Zuk agindutako gizadi berria
eraikitzen joan gaitezen.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:


✠. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

3. Eskerrak Zuri, Jainko

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak Zuri, Jainko gure Aita:
zure Seme Jesu Kristo,
Espiritu Santuaren egitez,
gure giza haragiz jantzita bidali diguzu.
Eta hura ikusirik,
harengan Zu ikusi ahal izatea eman diguzu.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∇. Ho - rre - ga - tik, bihotzez e - sa - ten di - zu - gu:



✠. Es-ke - rrak Zu - ri, Jain - ko, gu - re Ai - ta!

Jesu Kristo, Gizaki berria, Espirituaren indarrez,
on egiten, gaitzak hartutakoak sendatzen
eta behartsuei Berri Ona hots egiten igaro zen.
Eta guk, haren antzeko izanik,
haren urratsei jarraitzea nahi duzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

Zure Semea guregatik heriotzara emanik.
Espirituaren indarrez hilen artetik berpiztu
eta diren guztien Jaun ezarri duzu.
Eta guri Berarekin betiko bizi ahal izatea eman diguzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:


✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

4. Aintza Aitari

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Goresten eta bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Aita,
zure Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:



∇. Es-ke-rrak Zu-ri, Ai-ta o-na. ✠. Ain-tza Ai-ta - ri, e -



ta Se-me-a - ri, e - ta Es-pi - ri - tu San-tu - a - ri!

Zugandik hartu ditugun gauza on guztiengatik
eta gizakiari eman diozun Espirituaren dohainarengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Lurra emankor egiten duten eguzki eta urarengatik,
eta gizakiaren lanak sortu dituen
tresna eta aurrerapen guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Gure familietako maitasunarengatik
eta giza bizitzako lagunarte-
eta solidaritza-ezaugarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren irudiaren arabera,
gu zure antzeko nahi gaituzulako:
santu, on-on eta errukitsu,
eta hori lortzeko ematen dizkiguzun grazia guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuarengan,
gure atsekabe eta pozaldiek, gure ezbehar eta garaipenek,
argi berria hartzen dute.
Salbamen-misterio horren ondorio pozgarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren erospenari esker,
 izadi osoa erdiminetan dago
 zeru berriak eta lur berria itxaroten.
 Zure dohain dugun betiko biziaren itxaropenak
 guregan eta munduan eragiten dituen
 giza aurrerapide eta maitasun-egintza guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

5. Gora Zu: I

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Jesus Jauna,
 Zu zara ilunpeak desegiten dituen Argia.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

✠. Ho - rre - ga - tik e - sa - ten di - zu - gu: ✠. Go - ra
 Zu, go - ra Zu, be - dein - ka - tu - a Zu, es - ke - rrak Zu - ri!

Zu zara gezur-bidetik aldentzen gaituen Egia.

✠. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure pausoak zuzentzen dituen Bidea.

∞. Horregatik esaten dizugu:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gosea asetzen duen Ogia.

∞. Horregatik esaten dizugu:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gaitzak sendatzen dituen Osasuna.

∞. Horregatik esaten dizugu:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure heriotza garaitzen duen Bizia.

∞. Horregatik esaten dizugu:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure betiko bizia ziurtatzen duen Piztuera.

∞. Horregatik esaten dizugu:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

6. Gora Zu: II

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuri, Jesus Jauna, zuzentzen dizugu gure otoitza.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∞. En - tzun, Jau - na, gu - re go - ra - pe - na.

Denek

Go - ra Zu, be-dein-ka-tu-a - Zu, es-ke-rrak Zu - ri.

Zu zara Aitaren Seme bakarra.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, gizakia salbatzearren, giza izaera hartu zenuen,
Birjina Amaren sabelean.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, heriotzaren eztena garaiturik,
zeru-erreinuko atea ireki dizkiezu fededunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude,
betiereko aintzan.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Sinesten dugu berriz etorriko zarela
diren guztien Epaile eta Jaun.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zatoz eta lagundu
zeure odol baliotsuaz erosi dituzunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Egizu, betiereko aintzan
zure santuekin batean bizitzera iritsi gaitetzela.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

7. Zorionekoak, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok: Egin diezaiogun otoitz
gizaki guztien atsedean eta poz-iturri den Jesus Jaunari,
eskerrak emanez,
bere erreinuko mahaira deitu gaituelako,
eta gizadi osoaren alde eskatuz.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak Denek

∇. Zo-ri - o - ne - ko - ak. ✠. Zo - ri - o - ne - ko - ak, Jau-
na, zu - re e rrei - nu - ko ma - hai - ra dei - tu - ak.

Jesus Jauna,
Zuk gurutzean zeure burua eskaini zenuen,
gizon eta emakume guztiok bizia izan dezagun;

eta lantzak zulatutako zure bihotzetik
 odola eta ura isuri ziren, handik zure Eliza sor zedin;
 egizu Eliza hau santu eta errugabe
 eta zure maitasunaren ezaugarri bizi.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bake eta adiskidetzaille,
 gurutzeaz gorrotoa ezereztu egin zenuen
 eta, zeure baketzearen bidez,
 guztiok gizaki berri egiten gaituzu:
 isur ezazu zeure Espiritua
 gizadi osoa familia bat bera izan dadin
 maitasunean eta batasunean.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bizi eta berpizte,
 nekatu eta lanpetuentzat atsedean zara Zu:
 bakardadearen, oinazearen
 edo etsipenaren zamapean daudenek aurki zaitzatela,
 zure erreinuaren pozean guztiok elkarturik,
 esker onez gorets zaitzagun.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gizaki guztien argi eta salbamen,
 Zuk dituzu betiko biziaren hitzak
 eta Zu zaitugu zorion betera daraman bidea;
 egizu, fedea argiturik biziaren hitz horiek entzun ditzagula
 eta gure bizitzan zintzo bete.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, Zuk heriotza ezereztu eta bizi berria ematen diguzu:
eskerrak ematen dizkizugu,
bizi-egarria ase ahal dezagun
bizia zabaldu eta laguntza ematen diguzulako;
egizu, biziera berri batean ibil gaitezela.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, zeru-lurrek goستن zaituzten Jauna:
har ezazu gaur,
elkarte honek, Eliza osoarekin batean,
gogoz eta pozik eskaintzen dizun gurtza:
eta egizu, orain lurrean gurtzen zaitugunok
gorets zaitzagula betieran zeruan.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

8. Bai zorionekoak


Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok:egin diezaiogun otoitz ogi bizia den Jesu Kristori.

—Kristo, itun berri eta betikoaren apaiz, gurutzean opari ezin hobia eskaini zenion Aitari: erakutsiezaguzu opari bera Zurekin eskaintzen.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*



♪. Bai zo - ri - o - ne - ko - ak. ♪. Bai zo - ri - o ne - ko - ak, Jau-
 na, zu - re e - rrei - nu - an o - gi - a jan - go du - te - nak!

—Kristo, bakearen eta zuzentasunaren Errege handi, Zuk ogi-ardoak sagaratu zenituen zeure eskaintza adierazteko: ogi beraz janaritzen dituzunak, zure gorputzean bat egin ditzazula.

♪. Bai zorionekoak.

♪. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, zerutik jaitsitako mana, zure Gorputz-Odolez janaritzen duzu Eliza: janari honen indarrez ibil gaitzela.

♪. Bai zorionekoak.

♪. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, ikusten ez zaitugun gure otorduko mahaikide, atarian zaudena eta ate joka ari zarena, guregana etor zaitezela eta elkarrekin jan dezagula.

♪. Bai zorionekoak.

♪. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

9. Kristo, zeruko ogi

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Kristok bere afarira dei egiten digu guztioi,
eta afari horretan bere Gorputz-Odolak ematen dizkigu,
munduaren bizirako. Otoitz egin diezaigun berari.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak Denek

∴. De - nok ba - te - an es - ka - tzen di - zu - gu. ✠. Kris -
to ze - ru - ko o - gi, e - ma - gu - zu be - ti - ko bi - zi - a.

—Kristo, Jainko biziaren Seme, eukaristi afaria zure oroigarri egiteko agindu zenigun: emaguzu zure misterioak zintzo ospatzea zure Eliza aberats dadin.

∴. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, Goi-goikoaren apaiz bakar, apaizei eman diezu sakramentuak ospatzeko eginkizuna: egizu, beren bizitzan bete dezatela, sakramentuetan egiten dutena.

∴. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko mana, ogi beretik jaten dutenak gorputz bat egiten dituzu: indar itzazu, Zuregan sinesten dutenen artean, bakea eta elkartasuna.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko sendagile, zeure ogiaz hilezkor egiten gaituzu, eta piztueraren itxaropenez betetzen: emaeizu gaixoei osasuna eta bekatariei uste ona.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**


—Kristo, berriro etorriko zaren Errege, zure heriotza adierazten duten misterioak, Zu etorri arte ospatzeko agindu diguzu: egizu, Zuregan hildako guztiak zure piztueran piztu daitezela.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

V. BEDEINKAPEN ESKARIA KANTUZ EGITEKO DOINUAK


1 *Zuzendariak*



Denek

∇. Jaunak bedeinka gai-tza - la e-ta gaitz guztietatik
zaindurik eraman gaitzala betiko bi - zi - ra. *Rz.* A - men.

2 *Zuzendariak*



Denek

∇. Jaun ahalguztidun erru-ki-tsu-ak, Ai-tak, eta Semeak, eta
Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala e-ta zain-du. *Rz.* A-men.

VI. AZKEN AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUA

1 *Zuzendariak*

Denek ∇. Zo - az - te Jau-na - ren ba-ke - an.

℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

2 *Zuzendariak*

∇. Zo - az - te Jaunaren i - ze - ne - an e - ta ba - ke - an.

Denek

℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

